

3/1989 LEGEA, maiatzaren 30ekoa, Zergapideen Elkaregokitasun, Erakidetasun eta Lankidetasunekoa.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako lege osoa jasotzen da bertan.

AURKIBIDEA

Lehenengo Atala. Legearen ezarpen-eremua.	4
I ATALBURUA	4
Bigarren atala. Elkar-egokitasuna.	4
Hirugarren atala. Orokorrean elkar-egokigarri diren alderdiak.....	5
Lauugarren atala.	5
4 bis Atala.....	5
Bosgarren atala.	6
Seigarren atala.	6
6 bis Atala.....	6
Zazpigarren atala.....	7
II ATALBURUA	7
Zortzigarren atala.....	7
Bederatzigarren atala.....	7
Hamargarren atala.	8
III ATALBURUA.....	8
Hamaikagarren atala. Elkar-egokitasunerako Legeen ezarpena.	8
IV ATALBURUA.....	8
Hamabigarren atala. Kidekaketa.	9
Hamahirugarren atala. Ikuskaritza-Egitamu Bateratuak.	9
Hmalaugarren atala. Behartze-indarreko argibideak.	9
Hamabosgarren atala. Lankidetza.	9
V ATALBURUA.....	9
Hamaseigarren atala. Zerga-Kidekaketarako Saila.	9
Hamazazpigarren atala. Zerga-Kidekaketarako Saileraren egitekoak.	9
Erabaki gehigarria.	10
Azken erabakietako lehenengoa.....	10
Azken erabakietako bigarrena.	10
Azken erabakietako hirugarrena.....	10

Estatutua onartu zenetik argi gelditu zen kondaira lurraldeetako erakunde eskudunei dagokienez zergapidetza harremanen eremuan elkar-egokitasuna, erakidetasuna eta lankidetasuna lortzeko premia zegoela. Premia horren ondorioz, aribidez, Euskadiko Autonomi Elkarte osorako erakundeen eta kondaira lurraldeetako erakunde eskudunen arteko harreman hestuek sortu ziren. Horrela bada, lan horiek egiatan egin izan direla esan daiteke. Eta horrek bidea zabaldu du harreman iraunkorrak eratzeke, aurretik ere doakien Erakundeen arteko lankidetasun gogoak erraztuak zeudelarik.

Hasierako urte hauetan ere aurrera egin da, eta hor elkar-egokitasuna eta erakidetasuna lankidetasun-giro orokorraren barnean egokitzeko dauden arazoak agerian geratzen joan dira. Halaber, orain arteko azturak, gaur egun, arrakasta izateko nahiko bermez, bete behar duten esparrua Elkar-tearen premia zehatzei egokitutako araupidea eskaintzeko moduan legez araupetzeari heltzeko aukera ematen da.

Horrela, bada, gure Herriko legebidezko sarea osatzen joan diren bata-bestearen ondorengo Legeek arlo honetan emandako agindua betetzeko une egokia da hau.

Alde batetik, Autonomia Estatutuko 41.2.a) atalean aipatzen da, Kondaira Lurraldeetako Erakunde eskudunek, bere lurraldeetan, zerga-jaurpideari eutsi, hori ezarri eta arautu ahal izango dutela, Itunean bertan Estatuarekiko agertzen diren erakidetasun, zergapidezko elkar-egokitasun eta lankidetasun arauekin bat etorri; baita Eusko Legebiltzarrak helburu berekin Autonomia Elkar-terako emandakoekin ere.

Halaber, Ekonomi Itunearen legeak, 3.1.4. atalean, Kondaira Lurraldeen Zerga-Sistemaren oinarritakotzat hartzen du Kondaira Lurraldeetako Erakundeen arteko erakidetasuna, zergapidezko elkar-egokitasuna eta lankidetasuna, horretako Eusko Legebiltzarrak eman ditzan legeekin bat etorri.

Autonomi Elkarte Osorako Erakundeen eta horko Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Sailen arteko Harremanei buruzko legeak, Kondaira Lurraldeetako Lege izenez ere ezagutzen denak, bere 14. ataleko 3. zatian, eten gabe aipatzen dituen bi alderdi hauek jasotzen ditu. Batetik, Ekonomi Itunean aitortutako arauak emateko ahalmenaz baliatuz, Foru Erakunde eskudunek eman ditzaten manuek zerga ezberdinen funtsezko gaiak era bateratuz arautu beharra. Bestetik, Eusko Legebiltzarrak Kondaira Lurraldeen arteko zergapidezko elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasunerako arauak osabideratuko dituela ohartematen da.

Argi dago, bada, gai honi heltzeko benetako premia; horrela, bide batez, Autonomi Elkar-tearen legebidezko sarea osotzen joan diren lege ezberdinetako lege-alde-rikako aintzin-ohar-pideak betetzen dira. Ere- mu araupetzeko funtsezkoa den beste alderdi bat ere nabari da, arau horiek Eusko Legebiltzarrak emanak izan behar dutela, alegia.

Erraz uler daitekeenez, gai honi heltzeko bi bide zeuden. Osabideratu beharreko araupidetzan jasotzearen gai diren alor guztiak Lege bakar baten berariz eta zehazki arautzera iritsiz, alderdi guztiak eta bakoitza arautzean zetzan bat. Aukerako beste bidea, alderdirik zehatzenak eta berarizkoenak geroagoko baten osabideratzeko, esparru-legea egitean datza.

Gai honi heltzean, erakunde ezberdinen aginpideak begirunez eta kontu haundiz hartzeko, eta zerga-araupidetza- ren dinamikari berari egokigarri izanezko mekanika bizkorra bilatzeko premiak, elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasun biderapen honi berme osoz heltzeko modurik egokiena esparru-lege bat egitea hobetsi-arazi du.

Lankidetasuna, Helburu bat bera lortzeko beste batzurekin elkar lanean aritzea dela, eta Erakidetasuna ekintza bateratu bat egiteko ahaleginak biltzea dela ulertzen badugu, denok bat etorriko gara hau pentsatzean: biderapen hauek antolatzeke,

berauek egiteratzetik sor daitekeen baino zailtasun haundiagorik ez dagoela. Horrela, biderapen hauek, berenez, lortu beharreko helburuen batasuna azaltzen dute.

Elkar-egokitasuntzat zer ulertzen den zehazki adieraztea zailago izan daiteke, horren norainokoa zehaztea benetan korapilotsua den neurrian, azken batean, batasun-irizpidearekin baterakoa izatera iritsi daiteke eta.

Argi utzi behar denez, elkar-egokitasunaren arloan, hori ez da zerga-gaietan kondaira lurraldeetako Erakunde eskudunetatik sortu beharreko araupidetza osoa berdintasunez lortu behar. Ez da, beraz, zerga-erapidetza baten eta bestearen artean ezberdintasunik izateko aukera guztiak eragozteko asmorik, erapidetza horiek ari-biderako izan behar dituzten oinarritzko irizpideak finkatu nahi dira baizik.

Lege honen funtsezko guraria, kondaira lurraldeetan ezarritako zerga-erapidetzaren ezaugarria osotasun bakar bat itxuratzen duten zatiekin bat etorritzkoa izatean datzala ulertu behar da. Baina horrek ez gaitu elkar-egokitasunerako tresna bakartzat berdintasun-bideaz baliatzera eraman behar.

Lege honek funtsean lortu nahi dituen xedeak hauek dira:

- Zerga beharkizunak betetzea erosoago eginez, Kondaira lurraldeetako zerga-erapidetzak erraztea.

Zerga-iruzurra zebatzera bideratutako ekintzak Euskal Herriko Foru Aldundien arteko argibideen bapateko trukaketa eta ikuskaritza-egitamu bateratuen bidez erakidetzeari.

- Zerga-araupidetzaren elkar-egokitasuna, zergalaritzaren aldetikako hobariei arreta berezia eginez.

Helburu horiek lortzeko, kondaira lurraldeetako erakundeak Ekonomi Itunearen arabera araupidetzarako ahalmenaren jabe diren neurrian, Legeak Norbanakoen Urteko Irabaziekiko Zergarekiko araupidetza erakidetzeko esparrua xedatzen du. Baltzu-Zergari dagokionez legeak zehaztu egiten ditu elkar-egokitasunaren gai izan daitezkeen alderdiak, zerga horren berenezko gaiak eta zergalaritzaren aldetikako hobariak horrelakotzat izendatuz eta, lurralde baten baino gehiagotan iharduten duten baltzuen kasuan, zerga lakatzeko gai den Arduralaritza izendatuz edo, Ekonomi Ituneko hemezortzi eta ondorengo atalak erabiliz, Estatuko Arduralaritzari ez dagokion zerga kopuruaren zatia Foru Aldundiei izendatzeko. Ogasunen Jabe-Aldakuntzarekiko Zergari eta Agirizko Lege-egiketetikiko Zergari buruz, legeak, Zerga bereizkeriarik gabe ezarriko dela bermatzeko beharrezko diren funtsezko alderdiak elkar-egokitasunaren gai izan daitezkeela uste du; funtsean besterlakoa den araupidetza ezartzeak ekarriko lituzkeen diruzko okerrak aldenduz. Azkenik, toki-mailako zergetan elkar-egokigarritzat hartzen dira horien funtsezko alderdiak.

Era berean, zerga-beharkizunak betetzea zentralizazio bateratzeko tokia sortzen da; horrek zerga-harremanak Arduralaritza batekin baino gehiagokin dituztenek horietako batean aitorpen bakarra aurkezteko bide emango du, gaur egun dagoen zeharkako zerga-saka gutxitzeko bide.

Bere araupidetzaren Elkar-Egokitasunari buruzkoan lege honetatik at gelditzen dira Jarauntsi eta Emaizta-Zerga eta Ondarearekiko Zerga eta, hori, bestelako bestelako araupidetzak, eta bihurturik, ez baliabideen izendapenean erizpide aldaketarik sortuko ez duela pentsatzen delako, eta Balio Erantsiaren Zerga, araupidetzarako eskurik ez izateagatik.

Arauzko betebeharrak, epe eta ereduak gagozkiela, lehenengo biak erakidetzeari eta aitorpenegileak, Euskal Herriko Zerga-Arduralaritzetan aitorpenak egitean, nahiz eta

bateko eta besteko ereduak elkarren artean ezberdinak izan, edozein lurraldetako irarki-ereduz baliatu ahal izatea oharretematen da.

Lehen esan denez, gai guzti horiek lege baten arautzeak, zerga araubidean ematen diren etengabeko aldaketak direla eta sortuko lukeen zailtasunagatik, ez dirudi egokia denik. Horregatik, Legebiltzarrak emandako legezko erara jotzen da, zerga baten edo gehiagoren alde zehatzak horiek arautuko dituztelarik; horrela, elkar-egokitasunerako arauak eta kondaira lurraldeetan indarrean dauden araupidetzak mailaz maila joango dira egokitzen.

Kondaira-lurraldeetako erakunde eskudunek emandako manuak antolakidetzazko arauetan agindutakoari egokitzen zaizkiola bermatzeko, legean sortzen den Zerga-kidekaketarako Sailak arauzko txostena egin beharko duela agintzen da; hori aldi jakin baten egin beharko da, eta erantzunik eza aldezkotzat ulertuko.

Erakidetasunari buruzkoan, zerga-ebaskeria zebatzeko gizakizko eta gauzazko eskuarte hobeak jartzeko bide emateko, Foru-Aldundi bakoitzak izan ditzakeen bere egitamuen kaltetan gabe, jokabide-aldeetako bikoizkeriak edo Lurraldetakoren baten horietakorik ez izatea eragotziz, ikuskaritza-egitamu bateratuak egitea erabakitzen da. Esaten da, baita ere, eskatzen diren behartze-indarreko argibideei erantzuna eman aurretikako txostenaren gai izan beharko dutela, eta hortarako sortutako erroldan eraso beharko direla. Horrela, erizpideen arteko ezberdintasunak uxatuko dira araubide ezartzean.

Lankidetasunari buruz ematen diren arauak batipat informatika-alorreko lankidetzari buruzkoak dira, erakidetasunera zuzendutako arauak osatu ahal izateko.

Ekintza horiek egite-moduaren aldetik gauzatzeko, legeak Zerga-Kidekaketarako Saila sortzen du eta hor ordezkariak Jaurilaritzak eta Aldundiek dituzte, Sailarenosatze-modua eta eginkizunak zehazten direlarik. Sail hau funtsezko alderdi gisa itxuratzen da eta horren inguruan ibili behar dira eremu honetan garatu beharreko ekintzak. Eginkizun zehatzak dituen sail berezia da hau; horrela Autonomi Elkarteko eremu ezberdinetan ekintza egiterakorraren euskarri diren sailen arteko zati izango da, bakoitzak bere eginkizunak dituelarik.

Lehenengo Atala. Legearen ezarpen-eremua.

Autonomi Estatutuko 41.2.a) atalean agindutakoarekin bat etorriz, honako xede hau du Lege honek:

- a) Eusko Legebiltzarrak aurrerantzean egingo dituen legeen bidez osabideratzeko, Euskadiko Autonomi Elkarteko Kondaira-Lurraldeen zergapidetza-jaurpideak elkarri egokitzeko esparrua ezartzea.
- b) Kondaira-lurraldeetako Herriogasuntzak euren zergapidetza-lanetan aritzean erakidetasunez eta elkarrekin batera jokatzeko arauak ematea.

I Atalburua

2. Elkar-egokitasuna.

Kondaira-lurraldeetako zerga-arauek, dirubidezko elkar-egokitasunari buruzko gaitan, Ekonomi Ituneko legean daudenez gain, Eusko Legebiltzarreko legeek ezar ditzaten arauak beteko dituzte, lege honetan aipatutako eraginarekin.

Autonomi Elkar- osorako erakunde eta horko Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Jardute- Erakunde arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983

Legeko 14. atalaren 3. zatian oharmandakoa betez, Ekonomi Itunean aitortutako arauak emateko aginpidea egiteratzean, kondaira-lurraldeetako foruzko jardute-sail eskudunek eman ditzaketen manuek zerga ezberdinen funtsezko alderdiak era bateratuz arautuko dituzte.

Lortutako elkar-egokitasun mailak kondaira- lurraldeetan araupidetza ezberdinak izatea erraztuko du, beti ere, orokorrean, Autonomi Elkarte osorako zerga-saka baliokidea bermatzen badute behintzat.

3. Atala. Orokorrean elkar-egokigarri diren alderdiak.

Orokorrean, Ekonomi Ituneko legean agertzen diren edozein zergari buruz, egoki izan dadinean elkarri egokitu zaizkio:

Foru-Aldundi bakoitzarekin izan beharreko lege eta zerga-alorreko harremanak zehazteko erizpideak, behartutako zergaduruak betetzen dituen ekintzek zergakizunaren egiterapena edo zergalaritza-zorrak kondaira-lurralde baten baino gehiagotan sortzea dakartenean.

Aitorpenak aurkezteko epeak eta kitapenak egiteko ereduak: hauek, nolana ere, aitorpenak edozein kondaira-lurraldetako Arduralaritzatan egiteko baliozkoak izango dira.

4. Atala.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, hurrengo alderdi hauek harmonizatuko dira, bidezkoa denean:

a) Zerga horren honako atal hauek zehaztea:

1. Aplikazio-esparrua.

2. Egitate zergagarria. Batez ere, salbuespenak ezarri, kendu eta luzatzea, bai eta zergapetu gabeko errentak zehaztea ere.

3. Subjektu pasiboa.

4. Zerga-oinarria. Batez ere:

—Plan bereziak ezartzea. Enpresarien eta profesionalen jarduerak burutzeari atxikitako aktiboak amortizatzeko gehieneko eta gutxienezko koefizienteak ezartzea.

—Errenta zehazteko estimazio objektiboaren erregimenak.

5. Likidazio-oinarria.

6. Zergaren tarifa.

7. Kuotaren kenketak.

8. Sortzapena.

9. Atxikpenak, kontura egindako sarrerak eta zatikako ordainketak.

b) Enpresarien edo profesionalen jarduerak burutzeari atxikitako aktibo finkoen baloreak erregularizatzea edo eguneratzea.

4 bis Atala.

Ondarearen gaineko Zergari dagokionez, hurrengo alderdi hauek harmonizatuko dira, bidezkoa denean:

1. Aplikazio-esparrua.

2. Egitate zergagarria. Batez ere, salbuespenak ezarri, kendu eta luzatzea.
3. Subjektu pasiboa.
4. Zerga-oinarria.
5. Likidazio-oinarria.
6. Zergaren tarifa.
7. Kuotaren kenketak.
8. Sortzapena.

5. Atala.

Baltzuen gaineko Zergari dagokionez, hurrengo alderdi hauek harmonizatuko dira, bidezkoa denean:

a) Zergaren oinarritzko atal hauek zehaztea:

1. Aplikazio-esparrua.
2. Egitate zergagarria. Batez ere, salbuespenak ezarri, kendu eta luzatzea.
3. Subjektu pasiboa.
4. Zerga-oinarria. Batez ere, plan bereziak ezartzea eta aktiboak amortizatzeko gehienezko nahiz gutxienezko koefizienteak ezartzea.
5. Likidazio-oinarria.
6. Karga-mota.
7. Kuotaren kenketak.
8. Sortzapena.
9. Atxikipenak eta kontura egindako sarrerak zein ordainketak.
10. Erregimen bereziak.

b) Aktiboen baloreak erregularizatu eta eguneratzea.

c) Ekonomi Ituneko 18. atalean eta hurrengoetan dioena erabiliz, Euskadiri dagokion diru-kopurua foru-aldundien artean banatzea.

d) Foru-aldundi bakoitzari dagokion diru kopurua zehaztea, zergaduruak, agizko lurraldean ari gabe, lurralde batean baino gehiagotan lan egin dezanean.

e) Egoitzadunak ez direnen entitateen Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Berezia.

6. Atala.

Ogasunen Jabe-Aldakuntzarekiko eta Agiri-bidezko Lege-Egiketekiko Zergari buruz, honako eremu hauek egoki izan dadinean elkarri egokituko zaizkio:

- a) Zerga-gaia zehaztea.
- b) Zergari lotzen ez zaizkion kasuak zehaztea.
- c) Zergagabetzeak, beherapenak eta gainontzeko hobariak jarri, kendu eta luzatzea.
- d) Zerga-gaia zehazteko arauak.

6 bis. Atala.

Jokoaren gaineko Tasari dagokionez, hurrengo alderdi hauek harmonizatuko dira, bidezkoa denean:

a) Zergaren oinarritzko atal hauek zehaztea:

1. Aplikazio-esparrua.
2. Zerga-oinarria.
3. Karga-mota.
4. Sortzapena.

b) Salbuespenak, murrizketak eta gainerako zerga-hobariak ezarri, kendu eta luzatzea.

7. Atala.

Ekonomi Ituneko legean oharmandako toki-mailako zergei buruzko araupidetzaren honako alderdi hauek egoki izan dadinean elkarri egokituko zaizkio:

a) Funtsezko alderdi hauek zehaztea:

1. Ezarpen-eremua.
2. Zergakizuna.
3. Zergadurua.
4. Zerga-gaia.
5. Zerga-neurria edo saritaula-ordainkizuna.
6. Zorpidea.

b) Zergagabetzeak, beherapenak eta gainontzeko hobariak jarri, kendu eta luzatzea.

II. Atalburua

8. Atala.

1. Baltzuekiko Zergaren edo Balio Erantsiaren zergaduruek, baita kondaira-lurralde batean baino gehiagotan ari izanda Norbanakoen Urte-Irabaziekiko Zergaren eta Baltzuekiko Zergaren konturako atxikipenak edo sarrerak egin behar dituztenek ere, zerga horiei dagozkien dirubidezko beharkizunak zergapide- egoitza datzaneko kondaira-lurraldean edo, horren ezean, Euskal Herri barruan antolapide nagusia duteneko lurraldean bete ahal izango dituzte. Euskal Herrian ez zergapide-egoitzarik, ez eraikuntzarik ez baleuka, toki batean biltze hori edozein lurraldetan egin ahal izango da, zergaduruaren aukeran.

Beharkizun horiek betetzeko toki batean biltze horrek norbere kitapenetatik sortzen diren zerga-zorrik ordaintzea hartzen du, baina ez da dagozkien Foru-Aldundiek egindako behin behineko edo behin betiko kitapenetatik sortutako zerga-zorrik ordaindu behar izatera iristen.

2. Bere zerga-beharkizunak betetzeko toki batean bildu aurretik, zergaduruak eta atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituztenek era horretako aitorpena aurkeztu beharko diete doakien Foru-Aldundiei.

9. Atala.

1. Zergaduruak eta atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituztenek zerga aldetik zituzten beharkizunak betetzeko erabili dituzten Foru-Aldundiak, aurreko atalean agindutakoarekin bat etorriz, aitorpena egin ondorengo hilean, zergaduruak edo atxikipenak egin dituenak aurkeztutako agiriak, toki batean biltzea aukeratu izan ez balu, Aldundi horietan aurkeztu behar izango zituzkeenak, hain zuzen, dagozkien beste Foru-Aldundiei bidaliko dizkie.

Halaber, sarrera egin ondorengo hilaren barruan kitatuko ditu beste Foru-Aldundien alde zergaduruak edo atxikipenak egin dituenak egindako sarreretatik, berak egindako kitapenaren arabera, bakoitzari dagokiona. Sarreraren egunetik kitapena egiten den bitartean igarotako denborari dagozkion korrituak kontatu egingo dira kitapenean.

2. Ekonomi Itunaren 18 eta 28. ataletan aipatzen diren eragiketen kopuruan aldaketak gertatzen badira, eta horien ondorioz, Baltzuen gaineko Zergaren edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpena dela-eta, diru-sarrerak egin behar badira foru-aldundi batean edo gehiagotan eta, aldi berean, itzultzeko zenbatekoak ere jaso behar badira foru-aldundi beretan, zenbatekoen arteko konpentsazioa egingo da.

Zerga itzuli behar duen aldundiak (dela bat edo gehiago) konpentsaturiko zenbatekoak abonatu ditzkie diru-sarrera egin beharreko aldundiari edo aldundiei. Abonua zerga horien araubidean ezarritako epearen barruan burutuko da, zergaduruei itzulketak egin ahal izateko. Aipaturiko epeak gaindituz gero, dagozkien interesak ere ordaindu beharko dira, itzulketak gauzatu behar izan ziren egunetik hasita.

10. Atala.

Kondaira-Lurraldeetako Arduralaritzen arteko harremanak errazteko, bere zerga beharkizunak betetzeko lurralde bakar batean biltzea erabaki duten zergaduruak eta atxikipenak nahiz diru-sarrerak egin behar dituztenak errolda berezi batean erroldatuko dira; eta hori lege honen 1. atalean oharmandako Zerga-Kidekaketarako Sailean egingo da.

III. Atalburua

11. Atala. Elkar-egokitasunerako Legeen ezarpena.

Zerga-Kidekaketarako Sailak, Eusko Legebiltzarraren legez edo lege honen bidez erakideturako gaiei buruzko foru-mailako manu orokorretarako egitasmoiei buruzko txostena egingo du.

Horretako, Foru-Aldundiek, onartzea dagokion erakundeari aurkeztu aurretik, Zerga-Kidekaketarako Sailari bidaliko diote manu orokorrerako egitasmotarakoa.

Zerga-Kidekaketarako Sailak 30 egunen barruan emango du bere erizpena. Aipaturako epea igaro eta gero, erizpena aldekoa dela ulertuko da.

Halaber, hiru Foru-Aldundiek eska dezatenean, Zerga-kidekaketarako Sailak bere erizpena gehienera hamar egunen barruan emango du edo, hala behar izanez gero, presakakotzat aldarrikatu ondoren, horietako batek eskatuta, Zerga-Kidekaketarako Sailak behar hori ikusi ondoren.

IV. Atalburua

12. Atala. Kidekaketa.

Kondaira-lurraldeetako Zerga-Arduralaritzen ekintzak, Ekonomi Itunean eta atalburu honetan, baita Eusko Legebiltzarreko beste legeetan ere, ezarritako era eta neurritan kidekatuko dira.

13. Atala. Ikuskaritza-Egitamu Bateratuak.

Bereziki kondaira-lurralde baten baino gehiagotan diharduten arlo, talde eta enpresei buruzko ikuskaritza bateraturako egitamuak Foru-Aldundiek egingo dituzte.

Ikuskaritza-egitasmoen egiterapena, baita jarraipena ere, lege honetan sortutako Zerga-Kidekaketarako Sailaaren baitan egingo da. Horretarako Foru-Aldundiek, zergaduruei buruzko argipideak Zerga-Kidekaketarako Sailaren esku egon ahal izateko, egoki izan daitezen baliapideak, informatikazkoak barne, jarriko dituzte.

14. Atala. Behartze-indarreko argibideak.

Kondaira-Lurraldeetako zerga-Arduralaritzek izango dituzten erizpideen erakidetasuna lortzeko, 16. atalean aipatzen den Zerga-Kidekaketarako Sailak txostena egin beharko du behartze-indarreko argibideak egin aurretik.

Egindako txostenak, baita egindako argibideak ere, Zerga-Kidekaketarako Sailak eramango duen erroldean sartuko dira, eta honek agindutako zabalkundea izango du.

15. Atala. Lankidetzak.

Kondaira-lurraldeetako ihardutze-sail eskudunek, bere zerga-aginpideak erabiltzean, itundutako zergak ahalik eta ondoenen lakatzeko behar dituzten argibide eta altzinak emango dizkiete elkarri. Horretarako, hiru kondaira-lurraldeetako Foru-Aldundiek elkarren arteko harremanetarako beharrezko izan ditzaten teknika-bideak jarriko dituzte.

V. Atalburua

16. Atala. Zerga-Kidekaketarako Saila.

1. Zerga-Kidekaketarako Saila sortzen da eta honela osatuko:

a) Herriogasun eta Dirubidetarako Sailburuaren saloz, dekretuz izendatutako Eusko Jaurlaritzako hiru ordezkari; horietako bat lehendakari lanetan arituko da.

B) Foru Aldundi bakoitzeko ordezkari bana.

Zerga-Kidekaketarako Sailak bere lehenengo bileran erabakiko ditu jarraitu beharreko ihardunbide-arauak. Beti ere, erabakiak baliozkoak izateko, erabateko gehiengoak beharko da.

2. Eusko Jaurlaritzako Herriogasun eta Dirubidetako Sailak emango dio Zerga-Kidekaketarako Sailari, aginduta dauzkan egitekoak betetzeko behar dezan teknika eta arduralaritza-mailako laguntza.

17. Atala. Zerga-Kidekaketarako Sailaren egitekoak.

Zerga-Kidekaketarako Sailaren egitekoak honako hauek dira:

a) Zerga-kudeaketan eraginkortasun hobea lortzeko xedez, Foru-Aldundiek zerga-agintepideak betetzean, horien arteko erakidetasuna eta lankidetasuna bultzatzea.

b) Lege honetako 11. atalak aipatzen duen txostena egitea.

c) Zerga-arloan Euskal Herriko Autonomi Elkartek osorako erakundeek edo kondaira-lurraldeetako Foru-Erakundeek eska diezazkioten txosten guztiak egitea.

d) Egindako kudeaketa eta ikuskaritzari buruzko argipideak emanez, euskal Herriogasuntzak egindako lanen osatutako txostena urtean-urtean argitaratzea.

e) Lege honek edo beste batzuk agintzen dizkioten beste guztiak.

Erabaki gehigarria.

Jaurilaritza zerga ezberdinen zergapideak elkarri egokitzeko behar den edo diren egitasmoa edo egitasmoak Eusko Legebiltzarrerara bidaltzen joango da. Horretarako, gehienez urtebetekoa izango den aldiaren barruan, Eusko Jaurilaritzak 3,4 d), 5 e), f) eta g) ataletan esandako elkar-egokitasunari buruzko lege-egitasmoak bidaliko ditu.

Azken erabakietako lehenengoa.

Zerga-Kidekaketarako Sailari teknikazko eta ardulararitzazko laguntza ematea segurtatzeko, Herriogasun eta Dirubidetako Sailean beharrezko lanarigoa ugaritzeko baimena ematen zaio Eusko Jaurilaritzari.

Azken erabakietako bigarrena.

Lege honen bidez sortu den Zerga-Kidekaketarako Saila, legea indarrean jartzetik bi hilabetetik gora gabeko epean osatu beharko da.

Azken erabakietako hirugarrena.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamonean jarriko da indarrean.

Hala ere, Lege honetako 8. eta 14. ataletan agindutakoa datorren 1990.eko urtarilaren lehenengotik aurrera jarriko da indarrean.